

GEHIGARRI BEREZIA

M28

**KARTA
GUZTIAK
MAHAI-
GAINEAN**



UDAL HAUTESKUNDEAK 2023

Analisia

EAJren eta EH Bilduren arteko pultsua egongo da Aiaraldean hegemoniaren bila, Euskal Autonomia Erkidego osoan bezala



Testua
Aitor Aspuru Saez


Salbuespenak salbuespen, hau da, Okondo eta Arakaldo kenda, maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan lehian egongo da, bereziki, EAJk eta EH Bilduk daukaten pultsu politikoa. Izan ere, azken legealdietan bi indar politikoaren artean banatu dituzte udal gehienak eta horrela jarraitzea egongo da jokoan, edo indarre-

tako batek hegemonia osoa hartzea.

Berez, EH Bildu Arrankudiaga-Zollon eta Urduñan 12 urtez aritu da jarraian eta ikusiko dugu botereak urratuko duen bere bozkatzaile kopurua. Horrez gain, Arakaldon koalizioak ez du zerrendarik aurkeztuko eta talde independentea lehiatuko da EAJrekin. Horrez gain, Adiek berriz aurkezteari uko egin ondoren, jeltzaleak eta EH Bilduko

kideak dira egun udalbatzan ordezkariak dituzten bakarrak eta ikusteke dago Elkarrekin Podemosen zein neurrian okupatzen duen hutsune politiko hori.

Edonola ere, alderdi abertzaleen protagonismoak ezin du ilundu demokrasiaren jokoan beste taldeek ere azken hitza izan dezaketela gehiengo absolutuak osatzeko orduan, izan Laudion, Amurrion, Aiaran edota Artzniegan, esaterako.



eaj-pnv.eus
f @ t

Aurrera, batera!
Euskadi
Mira al futuro




Bozkatu Vota

eaj
pnv

Arakaldo

Aldaketa iritsiko da Arakaldora, emaitza edozein izanda ere



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aldaketak datoz Arakaldoko Udalera. Jabi Asurmendik alkatea izateari utziko dio, udalean 12 urte igaro ostean. 2011an irabazi zituen hauteskundeak lehenbiziko aldiz, baina, oso tartetxikiarekin, eta txanpona airera botata erabaki zuten nor izango zen alkatea, araudiak hala zehazten zuelako. 2015 eta 2019ko hauteskundeak, aldiz, tarte handiagoraekin irabazi zituen Asurmendik eta, on-

dorioz, bera izan da alkatea azken 8 urteetan, EH Bildurekin. Asurmendi erretiratuta, koalizio abertzaleak ez du beste hautagairik aurkeztu maiatzaren 28ko zitara.

Hala ere, herriko zenbait lagunek Arakaldoko Taldea izeneko hautagaitza sortu dute, "Asurmendik eginiko lanari jarraipena" emateko, baina "marka politikorik gabe". Ondorioz, talde horren eta EAJren artean egongo da lehia. 2019an EH Bilduk 51 boto eskuratu zituen, EAJk 43 eta bakarra, aldiz, PSE-EEK.



2019ko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus



SONIA HIDALGO
Arakaldoko Taldea

Arakaldoko Taldea demokraziaren beraren ideiarekin jaio da, non bizilagun guztiak duten zuzeneko eragiten dien gaitan erabakiak hartzeko benetako boterea. Gure tamainako herri batean hori guztiz bideragarria dela ulertzen dugu eta, dudarik gabe, ondorio positiboak izango ditu. Konfiantza dugu arakaldarren parte-hartzearekin. Gure herria maite dugu eta badakigu ez dagoela gu baino hoberik pauso bat emateko.

Okondo

Hiru aktore politikoren arteko lehia bizia

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ekosistema politiko propioa du Okondok. Sergio Tatok hartu zuen aginte makila 2011n, EH Bildurekin. 2015ean, aldiz, Okondo Aurrera talde independentearekin aurkeztu zen Tato, eta berriz irabazi zituen hauteskundeak, EH Bilduri botoen erdia baino gehiago kenduta.

2019an, aldiz, EAJ gailendu zen, eta EH Bildurekin batu zituen indarrak udal gobernua osatzeko. Izan ere, jeltzaleek

zazpi botoko aldea baino ez zioten atera Okondo Aurrera-ri, eta koalizio abertzalearen babesa behar zuten.

Modu horretan, EAJk eta EH Bilduk elkarrekin gobernatzen igaro dituzte azken lau urteak, beste edozein tokitan pentsaezina izango litzaitekeen gisara.

Gauzak hala, hiru talde politikoez izango dute zeresana maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan, eta euren arteko akordio edota desadostasunak ere funtsezkoak izan daitezke gobernua osatzeko orduan.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



JON ESCUZA
EAJ-PNV

Herriko bizilaguna naizenez, nire bizilagunei ahal dudan guztian laguntzen saiatzen naiz, pasioz eta buru-belarri. Gure herria hobetzen laguntzea proiektu berrietan lan egitea da, kiroldegian, esaterako. Baina, batez ere, behar dutenean pertsonengandik hurbil egotea da, haien beharrei erantzun eta irtenbidea emanez. Eta hori guztia egin ahal izateko, esperientzia profesional handia duen emakume eta gizon talde handi bat daukat.




SERGIO TATO
Okondo Aurrera

Azken 4 urtetan, Okondok zen herria izateari utzi dio, eduki behar dituen balioak galdu ditu: berdintasuna, elkartasuna, aniztasuna.. Lagunei mesede egin eta ez direnei kalte, gure herriko bizitza soziala desagertzen joan den bitartean. Hauteskundeetara aurkeztuko gara berriro, Okondo alda dadin, denok berdina izateko, gure kaleak berriro bizitzaz eta ilusioz betetzeko. Horretarako aukera bakarra Okondo Aurrera bozkatzea da.



JOSEBA RUIZ
EH Bildu

EH Bildun gogo handiz eta ilusiorik handienarekin egiten dugu lan herriarentzat, eta hala erakutsi dugu, batez ere, azken lau urteetan. Bultzada bat ematea lortu dugu kudeatu behar izan ditugun arloetan: berdintasuna, mendiak, euskara eta abeltzaintza. Eta orain zer? Gobernatzeko garaia da, bada garaia herri hau erabat berpiztu dadin, eta benetako berdintasunean, parte-hartzean eta aniztasunean bizi dadin.



Arrankudiaga-Zollo

EH Bildu eta EAJren arteko lehia estua



2019ko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Oso lehia estua egon zen 2019ko hauteskundeetan EH Bilduren eta EAJren artean. Lehenak 318 boto lortu zituen eta 311, aldiz, bigarrenak. Hauda, EH Bilduk gehiengo absolutua mantendu arren, zazpi boto-ko aldea baino ez zen egon bitaldean artean (PP eta PSE-EE ere

aurkeztu ziren, baina bost boto baino ezzituen lortu bakoitzak). Gauzak hala, maiatzaren 28an agerian geratuko da Urtzi Vergarak -hainbat urtez zinegotzia izandakoak- Josu Beaskoetxearen emaitzak hobetuko dituen eta EH Bilduk boterean egoteko urraketa nabaritu duen, edo koalizioak laugarren aldiz lortuko duen garaipena, jarraian 16 urtez udala kudeatzeko.



HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



TXUTXI ARIZNABARRETA
EH Bildu

EH Bilduren zerrendako lagunok oso ondo ezagutzen dugu herria eta oso ondo ezagutzen gaitu herriak, egunero lanean arigarelako guztiok herrigintza arlo desberdinetan. Gure herria maite dugu, Euskal Herria maite dugu. Ezkerrekoak, euskerazaleak, feministak, ekologistak eta independentistak gara. Jende konprometitua eta langilea. Lanari ekiteko gogo handiz gaude. Herri solidarioa, alai, bizia eta euskalduna nahi dugu. Zaintza komuntarioa, babes soziala eta berdintasuna dira gure banderak. Apustu oso anbiziotsua egiten dugu eta zoriontsu bizitzeko munduko lekurik onena eraikitzeko prest gaude. Maite ditugun Arrankudiga eta Zollo EGINGO DITUGU!



URTZI VERGARA
EAJ-PNV


Talde kohesionatua gara, indarra eta ilusioa duena eta udal-kudeaketan esperientzia duena. Udallerria bere etorkizuna markatuko duten erronka handien aurrean dago, eta EAJ-PNVren programa eta hautagaitza prest daude erronka horiei aurre egiteko. Bizilagunen ongizateak, etxebizitza publikoak prezio eskuragarrietan, euskarak, enpleguak, mugikortasun iraunkorrak, egoera energetikoak, kulturak, gazteriak, tresna teknologiko berriak eta HAPO berritzeak markatuko dute gure etorkizuna. Horregatik, hautagaitza honek Arrankudiaga-Zolloko EAJ-PNVren aldeko botoa eskatzen dizue, elkarrekin etorkizunari ilusioz begira diezaiegun!

AIARA BATUZ
HERRIEN ALDE LAN EGITEN
BOZKATU

24 BATUZ, BAT EGITEN

aiarabatuz.eus

EH Bilduk lau legealdi jarraian egitea egongo da jokoan Urduñan



EH Bilduk hiru legealdi igaro ditu Urduñako Udalean gehiengo absolutuarekin gobernatzeko. Marka horri eustea izango da koalizioaren erronka. Jeltzaleek, aldiz, gehiengo hori hautsi beharko dute gobernura iritsi nahi badute.



2019ko udalbatzaren osaketaren irudia. Aiaraldea.eus

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



ITZIAR
BIGURI
EH Bildu

Hamabi urte igaro dira EH Bildu udalera iritsi zenetik, herritarren bultzada itzel baten eskutik etorri zen aldaketa. Denbora honetan udal kontuak saneatu ditugu, udal zorra nabarmen murriztuz. Herriaren zerbitzuan zintzotasunez eta bokazioz lan egin dugu eta parte-hartzea sustatu dugu. Gardentasuna eta zintzotasuna bultzatzen ditugu, ustelkeriarik eta adiskidetasunik gabeko kudeaketa eredu alegia. Orain, konpromisoak berritzeko eta aurre egin behar diegun erronka berriei irtenbide berriak bilatzeko unea iritsi da. Hasitako bidea, egindako lan guztia, ez da gelditu behar; eta jarraitzeko, zure bultzada eta konpromisoa behar ditugu. Gure herriaren, Urduñaren, adierazpena besterik ez gara eta.



IKER
SANTOCILDES
EAJ-PNV

Betidanik, Urduñarekiko harrotasun sentimendu handia izan dut nire aitite eta amamak irakatsita eta nire helburua hiriko biztanleriak sentazio hori berreskuratzea da. Proiekturik onena daukagu, egungo beharrei erantzuten diona, eta hau gauzatzeko talderik onena, Urduñaren alde dena emateko prest dagoena. Gure asmoen artean honakoak nabarmenduko nituzke beste proiektu askoren artean: industrialdea kalitatezko enplegua erakartzeko berpiztea, La Mueran igerileku-ludiko bat egitea, erdigune historikoko irisgarritasuna hobetzea eta jaien antolaketarako Kuadrillen Elkartea sortzea. Urduña hobea egin dezakegu guztion artean! Izan Urduña!



MIKEL
AGUIRRE
URE-EEB-Elkarrekin
Podemos

Euskadiko Errepublikarren Batasunetik (URE-EEB - Elkarrekin Podemos) nahitaezkoa ikusten dugu, krisi eta utzikeri nabari etengabeen ostean, udal politika herriaren zerbitzura zuzentzea. Horretarako, UREk, Orduñaren arazoak modu eraginkorrean konpontzeko, garapen programa integrala proposatzen du. Honekin batera, herriaren eta Aiaraldeko bizi kalitatea hobetzeko asmoa dugu. Orduñako Egoitzaren hobekuntzak eta gestioa modu egokian bideratzeko, herriko azpiegiturak zuzendu eta garatzeko, eta garraio sarea berritzeko eta sustatzeko baliabideak martxan jarriko ditugu, Aiaraldean lan, bizi eta ikasteko eskubidea dugulako.

Dena herriarekin eta herriarentzat!




Testua
Txabi Alvarado Bafières

EH Bilduk gehiengo absolutuarekin gobernatu du Urduñan azken 12 urteetan. 2011n sei ordezkaririk lortu zituen koalizio abertzaleak, EAJk lau eta bakarra PPk. 2015ean Alderdi Popularrak ez zuen ordezkaritzak lortu, eta jeltzaleek zinegotzi bat gehiago lortu zuten. 2019an antzeko egoera errepikatu zen, baina bi alderdi nagusien arteko tartea murriztuta: EH Bilduk 1.112 boto lortu zituen (%46,31), EAJk 1.033 (%43,02). Gauzak hala, maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan lehia bizia egongo da bi taldeen artean; baina, beste eragile politiko batzuk ere sartuko dira jokoan. Euskadiko Errepublikarren Batasuna (URE) Elkarrekin Podemosekin aurkeztuko hauteskundeetara da berri. 2015an 145 boto lortu zituen koalizioak (%6,17). Emaitza hori ez zen nahikoa izan udalean sartzeko; baina, hauteskunde hauetan EH Bilduri bozkatzaileak kentzen badiz-

kio eta emaitzak oso estuak badira, EAJ izan daiteke irabazlea eta alkatetza eskuratu dezake. Era berean, kontuan

Lehia nagusia EH Bildu eta EAJren artean egongo da, baina URE-Elkarrekin Podemosek eta PSE-EEK ere izan dezakete zeresana, udalean sartzeko lortzen badute


hartu behar da PSE-EE eta PP ere aurkeztuko direla hauteskundeetara. Bi talde horiek udaletik kanpo geratu ziren 2019an. Sozialistek 160 boto lortu zituzten (%6,66) eta popularrek, aldiz, 62 (%2,58).




**Maite
duzun
Aiaraldea**



**EGINGO
DUGU.**



**Bizitzak ez du
preziorik.**
*Fakturek bizitza
baldintzatu ez
diezaguten.*



ehbildu

Taula eta fitxa berriak egongo dira Orozkoko hauteskundeetan



Josu San Pedrok Pedro Mari Intxaurrenari pasa zion agintea 2019an. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Martxoaren 17an erabat aldatu zen Orozkoko mapa politikoa. Egun horretan iragarri zuen Adie talde independenteak bukatutzat emango zuela bere 12 urteko ibilbidea eta ez zela berriz udal hauteskundeetara aurkeztuko, "ziklo bat" bete zuelako eta ez zitzaiolako "erleborik" iritsi. Talde hori egon da gobernuan Orozkon 2011tik hona, eta azken bi legealdietan gehiengo absolutuarekin, gainera. Lehen bi agintaldietan Josu San Pedro izan zen alkatea. 2019an, aldiz, Pedro Mari Intxaurrenari pasa zion aginte makila. Urte hartako hauteskundeetan 746 boto eskuratu zituen Adiek (%49,18), EAJk 401 (%26,43) eta EH Bilduk 285

Adie mapatik desagertuta, ikusteke dago nola banatuko diren botoak EAJ eta EH Bilduren artean, eta baita Elkarrekin Podemosek zenbateko babes jasoko duen ere

(%18,79) herritarren babes jasotzen zuten zuten bitartean. Gauzak hala, argi dago azken hamarkadan oposizioan egon diren bi taldeen artean egongo dela lehia datorren maiatzaren 28ko zitan, baina ikusteke dago nora joango diren orain arte Adiekoak izandako botoak. Ildo horretan, Elkarrekin Podemos aurkeztea ere baldintzagarria izan daiteke, euren apustua, neurri batean, Adieren hutsunea betetzea baita.

Era berean, ikusteke dago abstentzioa asko puztuko den edo ez orain arte udaleko indar politiko nagusia desagertu ostean. Modu batean edo bestean, gauza bakarra dago argi: Orozko Udala erabat aldatuko dela ekainetik aurrera.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



AITOR IZA
EAJ-PNV

Gutxi falta da zuen erabakia ezagutzeko. Ez dakit zein izango den; baina, dena dela ere, eskerrak eman behar dizkizuet. Aste hauetan zuen berotasuna eta hurbiltasuna sentitu dut. Zuen begiradek, aholkuek, animoek eta bultzadek esperantza eman didate. Bihotzeraino heldu zaizkit eta beti egongo naiz eskertuta zuen tratuaengatik. Bizitza aukerak dira, eta honi ezin ezetza eman. Herri honek etorkizun oparoa izango du. Herritar paregabeak ditugu eta Orozko beti izan du berebiziko indarra. Ni prest nago. Zuen iritziak, beharrak eta esku-hartzea ezinbestekoak dira herri hobea erakitzeke. Guztiok batera emango ditugu pausuak. Orozkoarra izatea harro egoteko modukoa da. Eskerrik asko eta laster arte!




SAMU PASANDIN
EH Bildu

Udalan zinegotzi moduan egon naizen azken lau urteetan erabakia inposaketaren bidetik eta herritarrek entzun gabe hartu direla ikusi dut. Orozkoarren alde lan egiten ez duen eta erginkorra ez den kudeaketa bat egon da, beharrezkoak diren ekintza eta inbertsioak aurrera eramateko gaitasuna galdu du Udalak. Aukera bat dekogu Orozko merezi duen aldaketa gauzatu eta gauzak egiteko. Konpromisoa, gaitasuna eta inizatibarekin, herriko azpiegiturak hobetzearekin, parte-hartzearekin, euskararekin, trantsizio energetikoarekin, lehen sektorearekin, tokiko merkataritzarekin eta gobernantza feministarekin ditugun erronkei erantzuteko proposamenak martxan jartzeke prest gaude eta #EgingoDugu.



PABLO GOMEZ
Elkarrekin Podemos

Orozkoarren babes nahi dugu hurrengo aterabidea emateko: itxitako saltokiak, saneamendu-sarea, bideak eta errepideak, komunikazioa, elikagaien bankuaren errelebo falta... Gure proiektuak arlo publikotik tokiko ekonomia bultzatzea du helburu, elkarrizketan eta lankidetzan oinarritutako konponbide erreal eta bideragarriekin. Megasorgailu eolikoak instalatu nahi dituzte gure iritzia kontuan hartu gabe eta onura pribatuen mesedetan. Guk trantsizio energetiko justua eta iraunkorra nahi dugu. Tokiko autoekoizpena eta kontsumoa bultzatzen dugu, tokiko enplegua eta merkataritza eta KM-0ko kontsumo arduratsua. Hezkuntza publikoa eta finantzatutako ikastaroak nahi ditugu. Zuen proposamenen zain gaude.



Artziniega

EH Bilduren bigarren legealdia jokoan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

EH Bilduk irabazi zituen 2015eko eta 2019ko udal hauteskundeak Artziniegan; baina, lehengoan ez zuen alkatetza eskuratu, PPK EAJri eman ziolako babes. Bigarrenengan, aldiz, gehiengo absolutua lortu zuen koalizioak, 469 botorekin (%47,09), eta orduan Joseba Vivancok hartu zuen aginte makila. EAJk 361 herritarren babes jaso zuen (%36,24) eta PPK 103rena (%10,34). Modu horre-

tan, Vivancoren taldeak bost ordezkari lortu zituen, jeltzaleenak 3 eta popularrek, aldiz, bakarra. Orain, gehiengo absolutua mantentzea berebizikoa izango da EH Bildurentzat, 2015ko egoera errepikatu ez dadin. Ildo horretan, erabakigarria izango da PPren zinegotzi historikoak uko egin izana zerrendaburu izateari -bozkek beste indar batera joan daitezkeelako edota zinegotzia galdu- eta PSE-EEK tokiko hautagaia aurkeztea, aurreko hitzorduan ez bezala.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



JOSEBA VIVANCO
EH Bildu



ENCINA CASTRESANA
EAJ-PNV




ITZIAR ORIVE
PSE-EE

Aldaketa finkatzea, zuk erabakitzen duzu. Duela zortzi urte Artziniegak nahikoa zela esan zuen, jendeak aldaketa eskatu zuen. Aldaketa hori jendearen esku bakarrik zegoela esan genuen, ez EAJren eta PPren eskuetan. Hala ere, beste lau urte itxaron behar izan genituen aldaketa finkatzeko. Maiatzaren 28an Artziniegak erabakitzeko aukera du, politika zaharrei agur esateko eta gauzak egiteko eta jendearekin harremanak izateko era berri bati babes emateko; etorkizunari begiratzeko, EH Bilduren proiektuaren eskutik.

Asko gustatzen zait nire herria eta onena nahi dut nire bizilaguentzat. Elkarrizketa, hurbiltasuna eta konpromisoa dira hobekien definitzen nauten hitzak, eta lau urte hauetan zinegotzi eta Aiarako Kua-drillako presidente gisa lortutako esperientziarekin, gure udalerrirako etorkizuneko proiektuei helduko diet. Artziniegak lau urte daramatza geldirik, eta proiektuak eta herriko bizitza berreskuratu behar ditugu. Indartsu gatoz, ideiekin eta proiektuarekin, gauza asko baitaude egiteko hobetzeko eta garatzeko aukerak pasatzen ez uzteko.

Gure bizitza eta herria hobetzeko Artziniegako bizilagunengan jartzten dut konfiantza. Udalean parte hartzea eta proiektu sozial arrerakoia garatzen laguntzera animatu nahi ditut. Lan eginez, herritarrei entzunez eta gardentasunez eraikiko dugu Artziniegarako nahi dugun etorkizuna. Sozialismoak Artziniegako Udalean hitza berreskuratu behar du. Ezkerreko politika justuak behar ditugu etxebizitzan, ingurumenean, udal-zerbitzuetan eta berdintasunean eta emakumei eta gazteei babes eman behar diegu.



www.lafuerzadelopublico.eus

PUBLIKOTASUNAREN INDARRA

LETICIA JIMÉNEZ
Amurrioko alkategaia eta Arabako Batzar Nagusietarako hautagaia

elkarrekin
Podemos ezker anitza Guk Bai

Jeltzaleek lortutako gehiengo absolutua dago jokoan

EAJ, EH Bildu eta Aiara Batuzen artean egongo da lehia Aiaran datorren maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan.



Egungo zinegotziak 2019an, udal gobernuen eraketan. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2015etik hona EAJ egon da alkatetetzan Aiaran. Jeltzaleez gain, beste bi talde politikok izan dute ordezkariak orduan: EH Bilduk eta Aiara Batuzek. EAJk 648 boto eskuratu zituen 2015ean (%40,2), EH Bilduk 566 (%35,11) eta Aiara Batuzek 245 (%15,2). PPK, aldiz, 85 boto baino ez zituen eskuratu (%5,27) eta orduan arte zuen zinegotzia galduz. 2019an, aldiz, jeltzaleen nagusitasuna etorri zen. EAJk gehiengo absolutua lortu zuen, 873 botorekin (%52,21). EH Bilduk, aldiz, 401 boto eskuratu zituen (%23,98) eta Aiara Batuzek 235 (%14,06). Gauzak hala, EAJren gehiengo absolutua da maiatzaren 28an jokoan egongo dena. Ikusteke dago ea jeltzaleek botoen erdia baino gehiago berenganatzea lortzen duten berriz ere. Lortuko ez balute, bestelako egoera batzuk irekiko lirarteke 24

administrazio batzardun udalerrian. EH Bilduk zein Aiara Batuzek jasotzen duten babesaren arabera, gehiengo ezberdinak egituratzea baloratu dezakete.

Azken bi legealdietan gobernatu du EAJk Aiaran, Gentza Alamillo alkate. Oposizioan, aldiz, EH Bildu eta Aiara Batuz egon dira

Izan ere, beste alderdi politikoen (PP eta PSE-EEk) euren emaitzak hirukoiztu beharko lituzkete zinegotziren bat lortzeko.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



GENTZA ALAMILLO
EAJ-PNV



PRUDEN OTEGI
EH Bildu




IRATXE PARRO
Aiara Batuz

Harrotasunez esan dezaket Aiararengan konfiantza dudala: bertako administrazio batzar bakoitzarengan, bertan bizi eta lan egiten duten emakume-gizonengan... haur, gazte, heldu, nagusi... guztiengan. Eta sinesmen horrek bultzatzen nau berriz ere etengabe bere alde lan egitera, adostasunak bilatzera, zerbitzurik onena eskaini eta guztion ongizatearen alde jardutera. Aparteko herri honen ondarea -kulturala, naturala zein ekonomikoa- bizirik mantendu eta etorkizun oparo baterako bidea jorratzea dira neure jomugak. Elkarlanean, herritarren beharrak artatuta, herri bezala planteatzen zaizkigun erronkei denok batera aurre eginda. Talde-lanean sinesten dudalako eta herria ditudalako egunerokoaren arrazoi.

Hurrengo lau urteetan erronka ugari aurre egin behar dio Aiarak: trantsizio energetikoa, gure basoen eta ingurumenaren zaintzari, mugikortasunari, 24 herrien beharrei, lehen sektoreak behar duen bultzadari, zaintza sistema duin bateranzko trantsizioari, etxebizitzari, euskarak behar dituen arnaguneei... Erronkez beteriko bide hori bi erataraino egin daiteke: beste interes batzuei begira jarrita botoen autoritatearen talaia batetik, edo jendearen ondoan, herria entzunez eta hari ahotsa emanez. Maiatzaren 28an hautetsontzietan jarriko ditugun bi boto-paperekin Aiaran balantza inklinatzeko aukera izango dugu, jendearen alde, eta horretarako beharrezkoa da EH Bildu, ilusioz eta indarrez, hori baita EH Bildu, jendaren indarra!

Aiarak, bizirik mantendu nahi badugu, aldaketa behar du. Hau ez da gauzatuko EAJk gehiengo absolutua duen bitartean. Zure botoak egoera aldatu ahal du eta maiatzaren 28an Aiara Batuz herrien alde lan egiten-aukera proposa da Aiara bizirik mantentzeko. Ez zaitez etxean gelditu, bozkatzera gerturatu zaitez! Erantzukizun handiko eguna da eta zure aukerak Aiararen etorkizuna markatuko du. Batzar administratiboak, hirigintza eta lehen sektorea, hauek dira gure ildo garrantzitsuenak. Hiruerekin lidergoa eta babesa behar dute, baina azkenengo legealdian ez dira zainduta egon. Aiara Batuzen lan konpromisoa eskaintzen dugu Aiararako, ideia independenteak eta herritik sortuta, ez goitik alderdiak ezarrita.





▼ **Eva López de Arroyabe Saez de Maturana**
Arabako Ahalduen Nagusirako hautagaia

Maite duzun Araba



Natxo Urkixo Orueta ◀
Aiaraldeko zerrendaburua

EGINGO DUGU.

**Jendarte gisa
aurrera egin
dezagun.**

*Kalitatezko zerbitzu
publikoak herritar
guztientzat.*

ehbildu

EAJ eta EH Bilduren artean egongo da lehia nagusia, baina ez bakarria




2019ko Amurrioko udal gobernuaren eraketaren irudia. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Josune Irabienek hirugarren aldiz jarraian eskuratu zuen Amurrioko Udaleko aginte makila 2019an. 2020ko azaroan, aldiz, Txerra Molinuevok hartu zuen bere lekukoa, eta beraizango dajeltzaleen al-

kategaia datorren maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. 2019ko hauteskundeen emaitzak ikusita, lehia nagusia EAJ eta EH Bilduren artean egongo dela aurreikusi daiteke. Lehenak 2.413 boto lortu zituen orduan (%42,12) eta bigarrenak, aldiz, 1.990 (%34,74). Modu horretan, 8 eta 7 ordezkari

lortu zituzten, hurrenez hurren. PSE-EE eta Orain Amurriok, aldiz, zinegotzi bana izan dute azken legegaldian, 484 eta 297 boto lortuta. Sozialistek jeltzaleek gobernua babestu zuten 2019an, baina ez ziren udal gobernuan sartu. Datu horiek ikusita, argi dago lehen bi alderdien artean egon-



go dela lehia nagusia, baina ez bakarria. Izan ere, aktore berriak sartu dira mapa politikoan: Guk Bai talde independenteak Elkarrekin Podemo-

sekin batu ditu indarrak, eta horrek PSE-EE edota Orain Amurrioren ordezkartzan izan dezake eragina, Udaltzatzen aldaketak eraginez.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



TXERRA MOLINUEVO
EAJ-PNV

Urte zail batzuetatik gatoz, baina orain gure auzo eta administrazio-batzaer guztiak hobetzen jarraitu behar dugu, Amurrio guztion artean eraikitzen baitugu. Zerbitzu gehiago, azpiegitura gehiago, kultura gehiago, nortasun gehiago, kohesio eta iraunkortasun handiagoa. Horretarako, EAJ-k proiektu sendo bat aurkezten du, 10 konpromiso estrategikorekin: kalitatezko enplegua sustatzea, eguneko zentro berri bat sortzea, Kultur Etxea handitzea, kiroldegia eta pilotalekua berritzea, parke lineala amaitzea, trenbideen azpitik lurpeko pasabide bat eta aparkalekuak sortzea, alokairuzko etxebizitza publiko gehiago, trantsizio energetikoa bultzatzea, eta neurri feministak ezartzea.



JON BERGANZA
EH Bildu

“Esaguzu zein den zure ideia ezberdinak izan gaitzen. Noren kontra zauden baino gehiago zer egiteko prest” abestu zuen duela ia 20 urte nafar batek. Iraultza txikien asanbladen unea heldu da Amurrion, asko dugulako jokoan, eta asko irabazteko. Zaintzen, etxebizitzaren, euskalgintzaren zein mugikortasunaren iraultzak, txikiak zein handiak, gure zain daude. Beste Amurrio bat posible delako eta horretarako EH Bildu delako aukera bakarra. Talderik onena osatu dugu proiektu hau aurrera eramateko. Baina, talde hori borobiltzeko pertsona bat falta da; zu behar zaitugu. Guztion elkarlana ezinbestekoa baita maite dugun Amurrio more, gorri eta berdea lortzeko.



LAURA FERNANDEZ
PSE-EE

Amurrioko sozialistak behin eta berriz esaten ari gara lidergoa falta denean itxaropena ahuldu egiten dela, baina ez dela desagertzen. Zentzu horretan, gure bizilagunei konfiantza, lidergoa eta itxaropena transmitituko dien norbait udalburu jartzeko unea iritsi da. Batez ere, itxaropena. Etorkizun hobearren itxaropena. Nola? Hautestontzietara joanez eta, eraiki nahi duen norbaiten alde bozkatzuz. Horretarako, azken legegintzaldian egindako lana aurkezten dugu eta, hauteskunde-programa gisa, 200 neurri baino gehiago Amurrio eraldatzeko. Horregatik, Amurrioren benetako aldaketa nahi duten guztiei dei egiten diegu euren botoa alternatiba sozialistan bil dezaten.



KEPA GONZALEZ
Orain Amurrio

Hautagaitza independentea gara, udalean ahotsa duena. Gure proposamenak: udal-kudeaketa parte-hartzaileagoa; jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko plana garatzea; alokairu sozialeko udal-etxebizitzak lortzea; gizarte-zerbitzuak hobetzea; gure mendietako energia-trantsizioko eredu jasangarria lortzea; benetako berdintasunaren aldeko erabakiak; gure auzo eta administrazio batzarrei laguntzeko neurriak; gazteen ahalduntzea bultzatzea; eta kultura arloa eta euskararen erabilpena sustatzea. Orainaldian inbertitu behar dugu etorkizuna ziurtatzeko. Horretarako, lanean jarraituko dugu, Amurrioko pertsonen bizi-baldintzak eta hobetzen.



LETICIA JIMENEZ
Elkarrekin Podemos

Aiaraldean eta Amurrioren lotura-arazo larria dugu gainerako Arabarekin eta gure eskualdeko herriekin; izan ere, garraio-zerbitzu publikoek ez dute bermatzen herriartar guztiek oinarrizko eskubideak izatea, hala nola osasuna, hezkuntza edo enplegua. Ez dute pertsonen arteko harremana ahalbidetzen, eta ez dute uzten ondasunak eta zerbitzuak egunero hornitzen ere. Elkarrekin Podemos- IU-Guk BAI hautagaitzarekin, eskualdeko eta bertako jendearen beharraz nekin koherentea den garraioa bultzatu nahi du, ArabaBuseko maiztasuna zabalduz eta Arabako aldirietako sarea bultzatuz, lehendik dagoen Miranda-Urduña trenbide sarea berreskuratuz, azken hau guxtiegi erabilitako egitura baita.

PSE-EE
PSOE



#arabazurekin
#alavacontigo

cristinadecerca.com



ARABA LANDA- GARAPENAREKIN

ARABA ZUREKIN

**CRISTINA
GONZÁLEZ**

ARABAKO DIPUTATU NAGUSI
IZATEKO HAUTAGAI SOZIALISTA

MAIATZAREN 28AN EMAN BOTOA PSE-EE ARABARI

Giltza nork izango duen, ebazteke

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Historikoki, EAJ eta Ezker Abertzalea txandakatu dira Laudioko Udaleko gobernuan. 2011n eta 2015ean EH Bilduk lortu zuen alkatetza, Natxo Urkixo buru. 2019an, aldiz, Ander Añibarrok hartu zuen aginte makila. EAJk 3.581 boto jaso zituen (%36,15), EH Bilduk 2.448 (%24,71), Omniak 1.807 (%18,24) eta PSE-EEk 1.035 (%10,45). Jeltzaleek eta sozialistek akordioa erdietsi zuten udal gobernu osatzeko eta, ondorioz, gehiengoarekin gobernatu dute azken lau urteetan, udalbatzako 17 zinegotzietako bederatzirekin.

Gehiengo osaketa

Gauzak hala, maiatzaren

28ko hauteskundeak korapilatsuak izango direla aurreikusitako daiteke. Zerrenda bozkatuena zein den garrantzitsua izango da; baina, agian ez erabakiorra. EITB Focusek martxoan argitaratutako inkestaren arabera, zinegotzi bat egon daiteke jokoan EAJ eta EH Bilduren artean, baina Omnia eta PSE-EEren emaitzak ere hartu beharko dira kontuan, funtsezkoak bilakatu daitezkeelako balizko aliantzak edo gehiengo absolutuak osatzerako orduan. Gauzak hala, baliteke maiatzaren 28ko hauteskundeak igarota apur bat itxaron behar izatea Laudioko alkate berria zein izango den jakiteko, hurrengo egunetako negoziatzioek garrantzi berezia izan dezaketelako, emaitzen arabera.

HAUTAGAI NAGUSIEN HITZAK



ANDER
AÑIBARRO
EAJ-PNV

EAJ-PNVren proiektua, Laudio erreferente eta lider bilakatzean oinarritzen da, bere kultura aberastasunagatik, politika industrial berritzaileengatik, berdegune eta espazio publiko berriztuengatik, merkataritzaren sendotasunagatik eta gizarte- eta berdintasun-politika abangoardistengatik. Horretarako, lan eta lan arituko gara, beti Laudioaren eta audioarren alde. Antzokia martxan jartzea, egoitza zaharraren berrikuntza, adinekoentzako espazio berria, Lamuza frontoiaren estaldura, haurreskola berria edo polikiroldegi berriaren proiektua, gure proposamenaren adibide batzuk baino ez dira. Laudioko EAJtik badakigu nola egin. Aurrera, batera.



AINIZE
GASTAKA
EH Bildu

Eskertuta, zuei esker! Laudioko errealitate ezberdinak ezagutze-ko aukera eman didazue. Kultura, euskalgintza, feminismoa, kirola, jaiak, inmigrazioa... Motibatzen zaituztena ondo ezagutzen duzue; gabeziak eta beharrak ezagutzeaz gain, proiektuak eta konponbideak dituzue buruan. Gure esku eta zuen esku dago Laudio pizteko aukera. Zuen ideiei eta proposamenei esker, Laudio hobea egingo dugu! Udala zuentzako lanean jartzea, gure konpromisoa! Zuen ahotsa entzungo dugu eta erabakitzeko gaitasuna bermatuko dugu, parte-hartze prozesu demokratikoagoa abian jarritz. Aldaketa dator! Guztion artean Laudio etorkizun kolosala izango du!



ALVARO
BARRIOS
Omnia

Alvaro Barrios naiz, Omnia-ko alkategaia. Nire konpromisoa: zure eta gure herriaren alde profesionaltasunez, zintzotasunez eta loturarik gabe lan egitea. Laudio behar duen aldaketarako esperientzia eta gaitasuna dugu. Auzotar profesionalak gara, politika egiteko parte-hartzearen aldeko apustua egiten dugu, ez gara politikari profesionalak. Talde plurala eta anitza da, batzen gaituen Laudioaren alde borrokatzen duena. Akordioak lortzeko garaia da. Hauteskundeak irabazi ala ez, Omniak zenbat eta negoziatuz indar handiagoa izan, orduan eta hobea izango da Laudioarentzat. Utzidazu etorkizun hobea eskaintzen gure herriarentzat!

LAUDIO

2019

ZINEGOTZIAK GUZTIRA 17

BOTOAK % ZINEG.

EAJ-PNV
3581 36.15 7

EH BILDU
2448 24.71 5

OMNIA
1807 18.24 3

PSE-EE
1035 10.45 2

ELKARREKIN PODEMOS
461 4.65 0

PP
432 4.36 0

VOX
69 0.7 0

ZURIAK
72

BALIOGABEAK
94




LOLI
MURIEL
PSE-EE

Laudiorako aurrerapen eta garapen integraleko programa bat aurkeztuko dugu, non gure adinekoek beren espazioa izango duten Sant Rokezar kluba zabalduz, jangela soziala integratuko duena; Lezeaga Aretoari jarraipena eman go diona emakumeentzat; eta hiltegi zaharrearantzako espazio multikultural bat sortuz. Merkataritza tradizionala eta 0 Km-ko produktuen sustapena bultzatuko ditugu. Azoka eta ekitaldi berriak erakarriko ditugu, mugikortasun iraunkorreko sistema bat garatuko dugu, eta auzoak erdigunera hurbilduko ditugu. Etorkinentzako bulego bat sortuko dugu, eta bitartekaritzarako familia elkargune bat. Taxi zerbitzua jarriko dugu izapideak egitera joan ezin direnentzat.



IÑIGO
PEDRUZO
PP

Laudioko udal hauteskundeak aukera bat dira herritarrek boto eskubideaz bertako ordezkariak hautatzeko. Garrantzitsua da hautagaien komunitatearen arazo eta beharrei erantzuten dieten programa errealistak eta bideragarriak aurkeztea. Hori dela eta, Alderdi Popularretik hainbat hobekuntza proposatzen ditugu, hala nola Laudioko eta Aiaralde osorako erreformazko ZIU mugikorra, Galdakaoko ospitalearen autobus zuzena edo ospitalearen aukera librea. Hiriburuarekiko komunikazioak hobetzea, A68 errepidearen doako bidesaria Bilbo zein Gasteiz aldera eta jakinarazpenak eta autobusen ordutegiak hobetzea. Adinekoentzako zopa sukaldearen ideia ere berreskuratuko dugu.



EH BILDU EAJ-PNV OMNIA PSE-EE PP VOX
ELKARREKIN PODEMOS

ERROLDA 14755
BOTOAK 9999
ABST. %32.23



**EGINGO
DUGU.**

Maita duzun Bizkaia

**Jendarte gisa
aurrera egin
dezagun.**

*Kalitatezko zerbitzu
publikoak herritar
guztientzat.*

Bozkatu

ehbildu

Hauteskundeen jarraipen berezia egingo du Aiaraldea Komunikabideak



Datuen zuzeneko jarraipena egingo du komunikabideak. Aiaraldea.eus

Hauteskundeen biharamunean herriz herrikako datuzehatzak eta zerrenda irabazleek elkarrizketak jasotzen dituen egunkari berezia argitaratuko du tokiko komunikabideak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaraldeko mapa politikoa aldatzera doa datorren maiatzaren 28ko Udala eta Foru Hauteskundeetan eta Aiaraldea Komunikabideak ez dio hitzorduari utzik egin nahi izan. Horretarako jarraipen berezia prestatzen ari dira.

Hauteskunde eguna

Maiatzaren 28a egutegian gorritz markatutako eguna da. Aiaraldea Komunikabideak zuzeneko jarraipena egingo du hautetsontziak zabaltzen diren lehenengo minututik. Aiaraldea.eus atarian kontsultatu ahalko dira azken albisteak, balizko intzidentziak edota parte hartze datuak.

Benetako lasterketa, ordea, 20:00etan abiatuko da, botoen zenbaketa batekin batera. Aiaraldea Komunikabideak datuen unean uneko jarraipena egingo du, eta hautagaien azken orduko balorazio eta elkarrizketak bilduko ditu.

Hamabostekari berezia Hauteskundeen biharamunean Aiaraldea Hemen hamabostekari berezia argitaratuko du Komunikabideak. Goiz horretan bertan -maiatzak 29- eskuratu ahalko dira aleak ohiko tokietan: garraio publikoan, komertzioetan, kirol instalazioetan, ikastetxeetan...

Hamabostekariak hauteskunde lotutako gehigarri berezia landuko du. Gehigarriak herriz herrikako emaitza zehatzak jasoko ditu, analisi batekin batera. Horrez gain herri bakoitzeko zerrenda bozkatuenari egingo dako elkarrizketa ere egingo da irakurgai bertan.

Alkategaiei elkarrizketak Aiaraldea Komunikabidearen hauteskunde jarraipena, ordea, ez da maiatzaren 28ra mugatuko. Bi aste hauetan herri bakoitzeko alkategaiei egindako elkarrizketak argitaratuko dira. Zenbait herritan, gainera, udal-erabakiak egingo dira hautagaien proposamen desberdinak aurkeztu eta azaldu dituzten.

Ekainaren 17ra arte ez dira benetan amaituko hauteskundeak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Dudarik gabe, maiatzaren 28ko udal hauteskundeen emaitzak oso garrantzitsuak izango dira tokiko erakundeetako etorkizunera begira, baina ezin da ahaztu ibilbide luze bateko beste geltoki bat izango direla. Izan ere, zerrenda bozkatuenak ez badu lortzen gehien-go absolutua, gainerako taldeen esku egongo da bestelako aukerak osatzea eta ondorioa ekainaren 17ko goizan iuslatuko da. Udalerri gehinetan, orain arteko jarrerak ikusita, litekeena da hautagai bozkatuen bilakatzea alkate, baina ezin da ezer ziurtatu %100ean. Edonola ere, emozio gehien ekar dezaketen udalak Artziniegakoa, Okondokoa eta Laudioak dira. Indarrean dagoen legegaldian EAJk eta PSE-EEK gehien-go absolutua osatu dute Laudion

eta Omniak erakutsi du prestutasuna egoera hori ez errepikatzen, hortaz, emaitzak argitaratzen direnetik eta udala osatu arte, negoziatioak egon daitezke. Artziniegan 2015ean PPK agintaritzan eman zion EAJri, EH Bilduk boza gehiago lortu zituelako, baina zinegotzi kopuruan berdinduta zeuden jeltzaleekin. Okondo, azkenik, EAJk eta EH Bilduk elkarrekin gobernatu dute azken lau urteak.



JARRAIPEN BEREZIA

ALKATEGAIEI ELKARRIZKETAK

HAUTESKUNDE EZTABAIDAK

EMAITZA HISTORIKOAK

EKITALDIEN KRONIKAK

eta askoz gehiago!

ATAL BEREZIA: www.aiaraldea.eus/bereziak/hauteskundeak2023

The screenshot shows the Aiaraldea website interface. At the top, there's a navigation bar with 'AIARALDEA' and 'FORU' buttons. Below it, a main header reads 'UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK AIARALDEAN 2023'. The content area is filled with news articles, each with a small image and a headline. For example, one article is titled 'Arrankudiaga-Zollon udal gobernu aldaketa gerta dadin, bozkatzeko beharra nabarmenduz du EAJk'. Another article mentions 'Amurrioko EAJk bere programaren 10 konpromiso estrategikoak aurkeztu ditu'. There's also an 'Agenda' section with dates and times, listing events like '2023/05/19 19:00' and '2023/05/18 19:00'. At the bottom right, there's a QR code.

Aiaraldea

Agerraldia egin zuen maiatzaren 3an Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Saraubeko mahaian, 'Bai We Can' kanpainaren barruan. Duela lau urteko udal hauteskundeetan alkategaiekin sinatutako euskararekiko konpromisoak ekarri zituzten gogora, konpromiso horiek berritzeko eskatuz.

Konpromiso berriak eskatu dizkie Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak alkategaiei



2019an alderdi politikoei hartu zuten lekua hartu dute oraingoan Aiaraldeko euskalgintzako eragileek, hautagaiei konpromiso berriak eskatzeko. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak duela lau urteko udal hauteskundeetan alkategaiekin sinatutako euskararekiko konpromisoak ekarri zituen gogora maiatzaren 3an Saraubeko mahaian egindako agerraldian. Kontseilua osatzen duten eragileetako ordezkariak zabal batek babestuta, legeladi hasieran hartutako konpromiso asko baztertu izana leporatu zien euskalgintzako eragileak eskualdeko udal-gobernuei.

Saraubeko konpromisoak

Duela lau urte, 2019an, toki berean elkartu zituen Euskalgintza Kontseiluak Aiaraldeko udal hauteskundeetarako alkategaiei, hilabete batzuk lehenago abian jarritako 'Ez, we can't' kanpainaren barruan. Udaletatik hizkuntza eskubi-

deak eta euskara biziberritzeko bultzatzeko konpromisoak hartzera deitu zituzten hautagaiak.

Orotara hauteskunde haientan aurkeztzen ziren Aiaraldeko 25 talde politikok sinatu zituzten konpromisoak Saraubeko mahaian, eskualdean balio sinboliko eta politiko handia duen tokian.

Babes zabal hori jasota, 'Ez, we can't' kanpainatik 'Bai, we can' kanpainara egin zuen salto Euskalgintza Kontseiluak, sinatutako akordioak betetzeko garaiari hasiera emanaz. Ekinmenaren bigarren fasean herriz-herriz jarraipen mahaia deitu zituen Kontseiluak. Bilera horietan konpromisoak aztertu eta aurrera egiteko zailtasunak identifikatzea zuten helburu: "Konpromisoen jarraipena egiteko, elkarlana sustatzeko, alderdikeriak saihestu eta euskararen normalkuntzan udale-

“Herritik herrira emaitzak oso desberdinak izan dira, baita dinamikarekiko atxikimenduak ere. Batzuk konpromisoak hartu izana ere zalantzan jarri dute”

txeetatik aurrera pausoak bultzatzeko sortu genituen jarraipen mahai horiek”, gogorarazi zuen Euskalgintza Kontseiluak maiatzaren 3ko agerraldian.

Lau urteko balorazioa

Lau urteren ostean, zertan dira konpromiso horiek? Galdera horri jarraiki legegaldiko balorazioa eskaini zuen Euskalgintza Kontseiluak Saraubeko mahaian. “Herritik herrira emaitzak oso desberdinak izan dira, baita dinamikarekiko atxikimenduak ere. Batzuk konpromisoak hartu izana ere zalantzan jarri dute”. Txostena osatu dute lau urteko dinamikaren balorazio integralarekin, eta Euskalgintza Kontseiluaren web-atarian kontsultatu daiteke.

Konpromiso berriak

“Oztopoak oztopo” dinamikaren baliagarritasunean “sine-

tsita” jarraitzen dutela nabarmendu zuten eskualdeko euskalgintzako eragileek. Horregatik, eta orain arteko bidean sakontzeko borondatearekin, 2023-2027 legealdirako konpromiso sorta berria luzatu diete hautagai guztiei. “Hizkuntza eskubideak oinarri, elkarlana lanabes, dinamikarekiko ezinbesteko atxikimendua; eta konkretuak, neurgarriak eta lorgarriak izan daitezkeen konpromisoak dira osagaiak”.

Herriz herri elkartu da azken egunetan Euskalgintza Kontseilua alderdi politiko guztiekin konpromiso berriak aurkezteko. Udal instituzioei euskalgintzarekin elkarlanean aritzeko galdegingo diete hizkuntza eskubideen errespetuan eta euskararen normalizazioan aurrera egiteko asmoz. Datozen egunetan egingo dituzte publikoak harreman biraren lehenengo ondorioak.